

COVID PASEA ZERTARAKO?



LARRUN #269

PASAPORTEA ZEREN TRUKE?

EGILEA | **ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA**

AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**

COVID txertoa hartu edo ez, norberaren hautu bat da, legezkoa, eta bata bezala besteak errespetu bera merezi duena. Ez da derrigorra, baina behartzeko erreminta ezarria dago Euskal Herri osoan: Europar Batasunak bidaiatzeko udan jarri zuen QR pasaportea. Zer dakar QR pasaportea? Kutsatze indizeari lotzen zaio bere aplikagarritasuna (herri batean hainbesteko kutsatze maila gainditzean egoten da indarrean), baina ez du kutsatzeak saihesteko balio: txertatuta egoteak ez baitakar immunitaterik. QR pasaportea, lehen kolpean, txertatu ez diren herritarrak zerbitzu publikoetatik, kultur eta kirol ekintzetatik eta ostatuetatik kanporatzea dakar, eta hau ez da txantxa, egun bizi garenon bizitzan lehen aldia baita herritarren sektore bat hauetatik kanporatzea legezkoztat hartzen

dena. Gizartearen kategorizazioa, gutxiengoaren kriminalizazioa eta gizarteko kohesioa pitzatzea eragiten ditu. Baina nekeza da sinestea neurri hau jartzen hainbesteko kostua eta esfortzua inbertituko dutenik, txertatu gabe dagoen %10ga-tik soilik. Zer dakar QR horrek pasaportea eskuan ibiliko duenarentzat? Pasaportea duen jendea ere badago aurka. *Larrun* honetan mintzo direnak horren adibide: lautik hiruk dute pasaportea. Orain, eguneroko bizitzan momentu oro erabaki beharra etorri zaigu: besteei QR pasaportea eskatuko diet nire ardurapeko lanetan? Pasaportea eskatzen didatenean erakutsiko dut edo uko egingo diot erabiltzeari? Pasaporterik gabe, nola egingo dut oinarrizko zerbitzu publikoak jasotzeko, sozializatzeko eta pertsona moduan behar ditudan jarduerak egiten jarraitzeko?

***OHARRA:** Lan hau inprentara eramateko egunean jakin da Frantziako Gobernuak urtariletik aurrera QR pasaportetzat txertoa soilik onartuko duela. Erreportaje honetarako elkarrizketak egin zirenean ez zen hori egocera.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.761 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABLOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2021eko abenduaren 31

Udan Europako beste estatuetara bidaiatzeko ezarritako Europar Batasuneko QR ziurtagiria orain Euskal Herriko herri guztietako eguneroko bizitzara iritsi da. Larrialdi egoera indargabetu ostean Europako "normaltasun berria" ezartzeko modua ote? Berau agindu duten Euskal Herriko mota guztietako gobernuek, inzidentzia tasa jarri dute pasaportearen oinarritzat, hau da, azken hamabost egunetan pilatu den COVID positibo kopurua araber, herri batean indarrean egongo da pasaportea edo ez. Seigarren olatua indarrean da eta kutsatu kopurua gorantz doa. Baina horrez gain, Jaurilaritzak pasaportea ezartzearekin batera jaitsi egin ditu herri bat semaforo gorrian, horian edo berdean dagoen definitzeko inzidentziaren baremoak, eta aldi berean, egunean egiten dituen test kopurua biderkatzearekin ekin dio. Eta zenbat eta test gehiago egin, kontabilizatzen den kutsatu kopurua (inzidentzia tasa) altuagoa da.

Behin pasaportea ezartzen denean, inzidentzia tasari begiratuko ote zaio astero, pasaportea herri bakoitzean indarrean den edo ez jakiteko, edo orokortu eta normalizatu egingo da bere erabilera? Normalizatuko dugu, egun bizi garenontzat lehen aldiz, herritarrak zerbitzu publikoetatik eta publikoari "irekiak" omen diren lekuetatik kanpo utzi daitezkeela? Inongo aldagairik ez da onargarri legearen aurrean ez iritzi publikoaren aurrean, orain arte, diskriminazio horretarako: ez sexu, arraza, erlijio, arrazoi politiko... Marra gorri hori urratuko da, zeren arabera? Herritarrek egindako hautu legal baten arabera?

Ezarri duten gobernuek badakite eskubideak urratzea ekar dezakeela eta legezkotasunaren muga-mugan dabilela pasaportea. Dekretu eta arau denetan aipatzen da hori eta osasun egoera larriarekin justifikatzen da, eta zehazten dute hautazkoak diren

aisialdira mugatzen direla neurriak eta epe oso mugatu bat ematen zaio. Epeak, ordea, luzagarriak dira, Ipar Euskal Herriko kasuan ikusi dugunez. Nafarroan pasaportearen ezarpena leialagoa da arau idatziek dioten bezala, hautazko aisialdi mota batera mugatzearekin, ostalaritzan aforo jakin bat dutenean eta mota bateko kultur ekitaldiak egiten dituzten aretoetan aplikatzen baita. Baina Euskal Herriko gainerako eremuetan, mugatzen dena kultur eta kirol jarduera guztiak eta egungo gizartearen sozializatzeko ereduan nagusi diren besteekin harremantzeko gune ia guztiak dira. Aisialdiaz arago, ordea, Euskal Herri osoan erabat baldintzatzen dena osasun publikorako sarbidea da, baita espetxeetan daudenek beren gorputzaren gaineko erabakia hartu ahal izatea ere. Berriz ere zaurgarrienak dira hautu bat egiteko muga gehien dituztenak.

QR BATEK EZ ZAITU BABESTEN

QR pasaportea ezarri duten agintariek ere badakite horrek ez dituela COVID-19 kutsatzeak saihestuko. *El País* egunkarian abenduaren 1ean Pablo Linde kazetariak argitaratu zuen artikuluan, ezagutzera eman zuen zer txosten idatzi duten Espainiako estatuko Autonomia Erke-degoetako osasun adituek eta estatuko Osasun sailak osatzen duten Kontseiluak: azaroaren 23ko data daraman txosten honen arabera, pasaportearen "onura" bakarra txertaketa bultzatzea da, baina horren aurrean, pasaportearen alde txar moduan zerrendatzen dituzte beste hauek denak: ez dagoela "ebidentziarik" esateko honek kutsatzeak gutxituko dituenik, areago, txostenak berak aipatzen du Europako inguruko estatuetan kutsatze tasak oso gora ginen duela COVID pa-



sea indarrean den arren, eta hauen artean dago Ipar Euskal Herriko esperientzia ere, zeinetan uztailetik pasea plantan egonik, kutsatzeen aldetik olaturik gogorrena udazken-negu honetan bizi duen.

Aipatutako Osasun Kontseiluak bere txostenean dio Espainiako Estatuan txertatutako pertsonen ehuneko askoz handiagoa dela gainerako estatuetakoa baino eta beraz, are eragin txikiagoa izango lukeela paseak kutsatzea saihesterakoan. Txosten honek berak seinatzen du paseak sustatzen duen ideia okerra: "Txertatuta egotea immunizatuta egotearekin lotzen du eta hori ez dator bat errealitatearekin"; txostenak dio txertoek lortu dutela heriotzak eta gaixotasuna oso larri pasatzeko arriskua saihestea, baina ez direla hain eraginkorrak kutsatzeak eragozteko: "Badakigu txertoa hartu dutenen %40 inguruk aukera dutela gaixotzeko eta gaixotasuna transmititzeko. Horregatik guztiagatik, kutsatzeak prebenitzeko pasearen balioa oso mugatua litzateke eta aurkako eragina ere izan dezake, prebentzio neurriak erlaxatzen badira".

Hala izan zen hasieran Ipar Euskal Herrian: leku itxietara sartzeko pasea ezarri zenean, barnealdean maskara kenduta egotea baimendu zuen legeak. Ikerketa denek diote kutsatzea saihesteko modu onena leku irekietan elkartzea dela eta leku itxietako aireztapena bermatzea, COVID pasearekin zerikusirik ez duten neurriak, alegia. EAEn pasea indarrean sartu berrian, gai horri lotuta mezu hau zabaldu zuen sare sozialetan Ugo Mayorrek, Euskal Herriko Unibertsitatean PCRak garatzen ari zuen lantaldeko koordinatzaileak: "Txertatu ez direnei seguruak eta osasungarriak ez diren leku itxietara sarbidea mugatzen jarraitzen badugu (ezer egin gabe aireztapena hobetzeko), azkenean kutsatzeen tasa handiagoa izango da txertatuta gaudenon artean, ez dauden artean baino".

Osasun gaietan prestigio handia duen *The Lancet* aldizkarian 2021eko azaroaren 19an argitaratutako *The epidemiological relevance of the COVID-19-vaccinated population is increasing* (COVID-19 txertoa hartutako



**JAURLARITZAK
ZAHAR-ETXEETAN ETA
OSPITALEETAN PASAPORTEA
DERRIGORTU DU, BERAZ,
HORREK JENDEAREN
KATEGORIZAZIOA
EKARRIKO DU. JENDARTE
BEZALA KATEGORIZAZIOA
ONARTUKO DUGU?"**

MATI ITURRALDE, HONTZA

biztanleriaren egoera epidemiologikoak okertzen jarraitzen du) artikulua kontuan hartzen ditu hainbat estatutan txertatuak izanik kutsatu diren

kopuruek gora egin dutela eta ondorio hau ateratzen du: "Neglijentzia handia da txertatuak transmisio iturri posible eta garrantzitsu moduan ez hartzea".

Espainiako Estatuko adituek egindako txostenera itzulita, bertan adierazi dute dagoeneko txertatuen ehuneko oso altu bat duen gizartean pasearekin irabaziko den txertatu kopuruak "oso zaila izango duela justifikatzeko hau ezartzeak ekarriko dituen kostuak eta ondorio negatiboak", eta azpimarratzen dute "bermatu behar dela ez dituela desberdinkeria egoerak sortuko".

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburorde José Luis Quintas Díezek, hala adierazi zuen Radio Euskadin abuztuaren 13an, beste herrialdeetara bidaiatzen zuten turistentzat Europako hainbat estatuk QR pasaportea ezarri zutenean: "Hasteko, nabarmendu behar da, 'pasaportea' edo 'QR ziurtagiria' erabat helburu zibikoak dituen neurria dela, ez osasun helburuak dituen". Hilabete batzuk geroago Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ezarri duten pasaporte berberak zer helburu ditu, orduan?



DO SPOROS

MATI ITURRALDE, Osakidetzako medikua eta Hontza elkarteko kidea: "Osasunaren eredu paradigmatico bat ezartzen ari da eta bizitzarako garrantzitsuak zaizkigun kategoriak paradigma horretatik kanpo geratzen dira".

ESTITXU EIZAGIRRE



NIKOLAS BLAIN, EH Baiko kidea: "Pasea eskatzen ez duten ostatueta joateko usaia hartu dugu, bestela, baztertzaila da pasea".

"NAHI DUTEN MODUKO GIZARTEA GARATZEKO BALIATZEN ARI DIRA"

Frantziako Gobernua izan da lehena Euskal Herrian pasea ezartzen. Hasieran, azaroaren 15era arteko epearekin ezarri zuen, baina ondoren uztailearen 31 arte luzatu du. Luzapen eskaera horren aurrean, EH Bai alderdiak pasearen neurriarekiko kontrakotasuna agertzen duen adierazpena plazaratu du. Bertako kide Nikolas Blainen hitzetan: "Pandemia-

ren aurrean hartu dituzten neurriak, tartean pase hau, haien jendarte erdua garatzeko baliatzen dituzte. Guk ez dugu bat egiten horrekin: kontrola, jendartearekiko konfiantza eskasa... Adibidez, Frantziak berriz galdegin dio Europari mugen ixtea luzatzeko, eta aipatzen ditu terrorismoa, txertatze maila apalak ondoko herrietan... Baina giblean ikuspegi globalagoa dago: migrazioari ateak ixtea eta abertzale gisa gure nazio eraikuntza oztopatzea".

GEDAR EUS



GAZTE KOORDINADORA SOZIALISTAK abenduaren 10ean elkarretaratzeak deitu zituen EAEko hiriburuetan, pasaportearen aurka. Irudian, Bilbokoa.

Gazte Koordinadora Sozialista argi kokatu da pasaportearen aurka, eta "burgesia pandemiari ematen ari zaion kudeaketa ereduaren" barruan ulertzen dute, bertako kide batek azaldu digunez: "Eskubideen esparrua murrizten ari dira. Ongizate estatuaren paradigma agortu zen, eta gero eta pobrezia handiagoarekin batera gero eta eskubide gutxiago existituko direla dirudi: ezagutu dugun demokrazia burgesa gainbeheran dago. Zentzu horretan, burgesiaren ofentsiba politikoa bizi dugula diogu, eskubideen murrizketak dakarrena (alderdi politiko guztien onespenezekin), eta COVID pasea ofentsiba horren parte da. Horri aurre egiteko beharrezkoa da burgesiari boterea kentzea. Zertarako? Ez beste kasta politiko bat sortzeko, baizik, klaserik gabeko gizarte bat eraikitzeko".

Mati Iturralde Osakidetzako familia medikua da, 1994an Ezker Aibertzaileko legebiltzarkidea izana, eta pandemiaren aurrean egiten den kudeaketan giza eskubideak errespetatzea exigitzeko Hontza elkarte sortu duenetako bat: "Hontzaren helburua herriaren defendatzaile lana egitea da, Arartekoak ez duela ezer egiten ikusita". Iturralderen ustez, pasaportearekin eta hartu diren beste neurriekin "estatu dual bat" sortzen ari dira: "Estatuak baditu bere neurri legislatiboak, eta herritar bakoitzak badakigu zein gauza egin ditzakegun eta zein ez. Baina bestelako praktika bat egiten da: ez txertatzea legala den hautu bat da, baina behartuko zaitut txertoa hartzera, saiaturako gara ezin bizi izan zaitez txertorik gabe. Ez da ilegala konfinamendu garaian etxetik ateratzea umeekin paseo bat ematera, baina esango dizugu ezin duzula egin eta behartuko zaitugu: gerora ikusi da ez zegoela oinarri legalik horretarako, baina bere momentuan aplikatu egin zen. Estatu dual horretan, eremu legalak nola-baiteko kontrol minimo bat badu,

demokraziaren aterki anbiguo horretan dagoelako, baina praktikaren eremuak ez du oinarririk ez zilegitasunik: jendarteak ez du eztabaidatu eta erabaki estatu dual horretan bizi nahi duenik, hau da, agintariei baimena ematen dienik legeaz harago momentu bakoitzean nahi dutena egin dezaten". GKSko kideak gehitu du epe ertaineko ikuspegi batetik, gero eta zailagoa izango dela agintean direnei frenua jartzea, QR pasaporteak ere "baldintza politikoak okertzen dituelako. Hau da, beste zenbait ondorioez gain, sortzen ari den testuinguruak murriztu egiten ditu enpresarien eta politikari profesionalen sistematik kanpo antolatzen garenon eskubide politikoak".

Hain justu, pasaportearen helburua behekoen artean zatiketa eragitea dela uste du Jasone Irozek, irailaz geroztik Ipar Euskal Herrian pasaportearen kontra egiteko sortu den Ez Pass! Nora Goaz? Kolektiboko kideak: "Taldeari izen hori jarri diogu, izan ere, pasaporteaz harago gaia da nora goazen: zer gizarte ari gara egiten? Zer gizarte inposatu nahi digute eta zer gaude gu onartzeko prest? Erabat kontrolatutako gizartea? Hori da denok elkarrekin, txertatu ez txertatu, gure buruari egin behar diogun galdera. Zergatik sorgin ehiza hori, zergatik kontrol hori? Horrek zeri irekitzen dio atea? Galdera horiek buruan elkartu gaitezke berriro, gogoratuz goikoei zatiketa komeni zaiela".

NORBANAKOEN ESKUBIDEAK ETA ESKUBIDE KOLEKTIBOAK, DOSIKA

Aipatua dugun bezala, paseak ideia oker bat du oinarri, txertatuta egotea immunizatuta egotea dela. Eta kontrako ideia ere badu oinarrian: PCR baten bidez kontrakoa frogatzen ez duen bitartean, txertoa hartu ez duena kutsatuta balego bezala tratatzen du. Zuzenbideko errugabetasun printzipioaren kontrako



JASONE IROZ, Ez Pas! Nora Goaz? Kolektiboko kidea: "Haien eskumeneko Herriko Etxeetan nola jokatu dute pasaportea auzitan jartzen duten alderdi politikoak?"

logika darabil eta errealtatearekin zerikusirik ez duen lotura honetan oinarrituta ukatzen zaie egun batetik bestera legezkoa den aukera bat egin duten pertsonen gizartean inte-

eramatea. GKS ohartarazi duenez, "pribilegioen kasta sistema bat sortzen ari da, askatasunen kontrakoa: txertatuta bazaude eskubide gehiago dituzu, ez baduzu paserik ezin zara jendearekin elkartzeko lekue-tan egon, estatuan integratuta bazaude eskubide politiko gehiago dituzu bertan integratu gabe egonda baino... XIX. eta XX. mendeetan, besteak beste, jarrera erreakzionarioek justifikatzen zuten hori. Eta egungo gizartean berriz ere joera hori dator. Sortu duten egoera horretan, pasaportea ez duenaren kontrako kriminalizazioa eta estigmatizazioa egin daiteke, eta saiatu behar dugu hori neutralizatzen".

Iturralderentzat eskubidedun eta gabeen bereizketa hori da larriena: "Jaurlaritzak zahar etxeetan eta ospitaleetan pasaportea derrigortu du, beraz, horrek jendearen kategorizazioa ekarriko du. Jendarte bezala kategorizazioa onartuko dugu?".

Egun batetik bestera pribilegio bihurtu dutenez beste pertsonekin plaza publikoan interaktuatzea, eta zerbitzu soziosanitarioetara, kultur



**GIZARTEAN SORTZEN
DUEN ZATIKETA DA GEHIEN
KEZKATZEN NAUENA.
(...) NIK NIRE BURUA
AUTOBAZTERTU ORDEZ,
NAHIAGO DUT PASEA
ESKATZEN DIDANAREKIN
HITZ EGINDA EGOERA
AGERIAN JARTZEA"**

**JASONE IROZ,
EZ PASS! NORA GOAZ?**

gratzeko, parte hartzeko eta pertsona moduan garatzeko beharrezko diren leku publikoetara sartzea eta kultur zein kirol jarduerak aurrera

zein kirolera sarbidea izatea, badi-
rudi “pribilegio” berri horretara
sarbidea ematen duen QRa izatea
sekulako pagotxa dela. Baina pasa-
porte hori eskuratzea zeren truke
da? “Kontrol soziala” datorkio he-
rritar askori burura. GKSko oroitar-
azi duenez, “lehendik datorren joera
da kontrol soziala areagotzea: web-
guneetan cookieen erabilera, segur-
tasunaren izenean espazio pribatu
eta publikoetan kamerak jartzea,
txipak, Big Data, errekonozimendu
fazialerako teknologia... Hori guztia
pixkanaka ezartzen eta normaliza-
tzen ari da. Pasaporte hau gizarte
kapitalistaren kontrol joera horren
baitan kokatzen dugu, bere bidez
datuak errazago monitorizatzen di-
relako: jakin daiteke norekin egon
zaren, non, zein ordutan... Objekt-
iboki COVID paseak kontrol soziala
handitzea dakar”. Kontrol sozial ho-
nek teknologiaren garapenarekin eta
digitalizazioarekin duen harremana
seinalatu du GKSko kideak. Irozek
bat egiten du ideia horrekin: “Tekno-
logia garatzen dute haiek dena kon-
trolatu dezaten eta herritarrok gero
eta gutxiago kontrolatu dezagun”.

Kontrolari eta informazio pribatu-
ari lotuta, paseak urratzen duen
beste oinarri bat nabarmendu du Itur-
raldek: osasun konfidentzialtasuna.
“Inor ezin da egon behartuta esateko
txertatuta dagoen ala ez. Esan behar
ez dudan bezala hiesaren birusa du-
dan edo ez, psikosi errektibo bat



EZ PASS! NORA GOAZ? KOLEKTIBOA


irailan hasi zen antolatzen eta astero 35 kide
inguru biltzen dira. Argazkietan, paseagatik
lanetik kanporatzeko arriskuan dauden
lanbideak ikusarazteko egin zuten ekintza.
Argazkia: Ez Pass! Nora Goaz?

dudan edo ez... Konfidentzialtasun
hori bakoitzaren eskubidea da”. Orain
badi- rudi tabernari, liburuzain, kirol
langile eta gainerakoek jakin behar
dutela txertoa jarri zenuen, edo due-
la zenbat pasatu zenuen COVID-19a
edo... Baina Iturraldek azpimarratu
du norberaren medikua soilik dela
norberaz gain osasunari buruzko in-
formazioa eduki behar duena: “An-
bulategiko langileekin ere gaia landu
behar izan dut: ezin zaio inori galdetu
txertatuta dagoen ala ez. Hori ez da
zuen lana eta hori ez duzue zuek ja-

kin behar, pertsona guztiak berdin
tratatu behar dira. Gero osasun arazo-
rik baldin badago, lan hori nik egingo
dut, nire izenean. Anbulategira nor-
bait sartzen da esanaz ‘umea dakart
katarro pixka batekin...’ eta lehenen-
go diosala: ‘Txertatuta zaude?’. Baina
zer galdera da hori? Zer axola zaizu?
Anbulategiko langileek ere galdetu
badute, pentsa kalean!”. Medikuek
azaldu duenez, “alde batetik, eskubi-
dea da konfidentzialtasuna. Eta bes-
tetik, komunitateari ez dio ezertan
laguntzen zu txertaturik edo gaixorik
zauden edo ez jakiteak. Zerk ematen
dio laguntza komunitateari? Bizitze-
ko baldintza osasungarriak izateak:
etxebizitza, lana, herriko antolaketa...
Baina zu txertatu zaren edo gaixorik
zauden edo ez jakiteak? Horrek zer-
tan laguntzen du komunitatea?”.

Iturraldek ohartarazi du osasu-
naren konfidentzialtasunaren muga
zeharkatzen badugu, “oso terreno
arriskutsuetan” sartuko garela: “Gi-
zartearen kategorizazioan. Gaixota-
sun bat duten edo ez duten pertsonen
arteko kategorizazioa, ohitura osa-
suntsuak dituzten eta ez dituztenen
artekoa, ariketa fisikoa egiten dute-
nak eta ez dutenak... Eugenesiarekin
kontuz”. Osasunari buruzko begirada
“monolitikoa” zabaltzen ari dela ohar-
tarazi du: “Adibidez, agian niri lagu-
nekin ardoa edatea gustatzen zait, eta
jakin arren ‘osasun idealerako’ ez dela
oso ona, erabaki dezaket nire lagune-
kin edatea, nik erabakitzen dudalako
nire bizitzarako gauza onak zein di-
ren, asebetetzen nautenak, gustura
sentiarazten nautenak, adibidez, bes-
te pertsonekin egotea... Kanpoko ere-
du paradigmatico bat jartzen denean,
bizitzarako garrantzitsuak zaizkigun
kategoria horiek denak paradigmatic
kanpo geratzen dira. Egun limite ho-
rretan gabiltza, gizartearen kategorietan
mailakatzeko zorian, denok berdina
izan gaitzen”.

QR pasaporterekin batera NAN
erakustea exigitzen dute askotan.
Besteren osasun eta nortasun da-





BIZITZA

Abenduaren 18an milaka manifestari elkartu ziren Donostian, "COVID pasearen inposaketari ez" lelopean Bizitza plataformak egindako deialdira. 33 taldek osatzen dute plataforma hau.

tuak erabiltzeak legezkotasunarekin eta datuen pribatutasunaren urraketekin duen marra lausoaz gain, langileak polizia lanetan jartzen ditu. Hori egitera ukatzen dira langile batzuk, eta modu antolatuan, kulturgileek agiri bat plazaratu dute hori ez dela haien lana salatuz. Irozek azaldu duenez, "langileen artean denetatik dago: batzuek bideak bilatzen dituzte pasaporterik gabekoak ez diskriminatzeko, baina beste batzuek oso harro dabilta polizia lana egiten eta besteak nola bizi behar diren agintzen. Balkoietako poliziak kallean dabilta orain".

GAUR PASEA DUT, ETA BIHAR?

Txertoek sei hilabeterako eraginkortasuna dutenez oraingoz onartuta, pasaporteak izateko baldintza sei hilero dosi bat hartuz berritu behar da. Gaixotasuna pasatu berri izateak ere sei hilabeterako pasaporteak ematen du. Beraz, "pasaporteak daukat" pentsatzea baino, zehatzagoa da "egun pasaporteak

badaukat" esatea. Edo bestela, pasaporteak beti izatearen truke "beti txertatuko naiz" hautua egin beharko genuke.

Ikusirik COVID-19aren aurkako batere txerto dosirik hartu gabeko jendea %10a dela oraingoz, baina hala egitea erabakitzen duten gurasoen haurrak txertatzen dituztenean kopuru hori asko jaitsi daitekeela... Pasaporteak jendea txertatuarazteko duen indar handiena zein da? %5-%10a txertatzera behartzea, edo %90-%95a hemendik aurrerako dosi guztiak hartzera bultzatzea? Hego Euskal Herrian pasaportearen ezarpena, txertoa hartu edo ez erabakitze momentu gako batean suertatu da: umeak txertatu edo ez erabaki behar izan denean, eta adin tarte guztiek hirugarren dosia hartu beharko dutela entzuten hasi denean.

Txertoa hartu edo ez, ez da kategoria finko bat. Egunero aldatu dezakegu erabakia: orain arte hartu ez duenak bihar erabaki dezake hartzea, eta orain arteko dosi denak hartu dituenak erabaki dezake mo-

mentuz beste bat ez hartzea. Beraz, herritar denen erabakitze ahala baldintzatzen du pasaporteak.

Iturralderen hitzetan, "orain zein da jendearen helburua? Jendarte eredugarriaren eskeman sartzea. Baina arriskua dago paradigma 'eredugarri' horretan bihar beste parametro batzuk ere sartzekoa".

Atzo arte pentsaezina bazen ere, Europatik etorri den QR pasaportearekin ez da zaila "kreditu sozial" moduko bat irudikatzea. Aspaldidanik dago martxan, gainera, COVID-19a zabaldu den herrialdean bertan, Iturraldek gogorarazi duenez: "Txinan hiritar eredugarri izateko hainbat puntu eduki behar dituzu, hemen gidabaimenean bezala". Eta gobernuak kalifikatzen duenaren arabera "gaizki" egindako gauzekin galtzen dira puntuak: kreditu sozial hori gabe ezin da etxe bat erosi, edo lanpostu batzuetara sartu, ezin da herriko kultur ekintzetan parte hartu... Iturraldek ohartarazi duenez, "kreditu sozial hori kontrol politikorako erabiltzen da, autoritarismoaren printzipioetatik".

Nola bizitzen da QR pasaporteen herrian?

Ipar Euskal Herrian dugu esperimentziazirik handiena, pase honekin bizitza nola antolatzen den ikusteko. Nikolas Blainek azaldu du EH Bai barruan zer eztabaida izan zuten gaiaren inguruan, eta zein oinarri adostu duten: “Orokorki denok pasaportearen kontra ginen: askatasunen murrizketa ekarri duelako, gure osasun informazioa eman behar diogulako ostalari edo dendari bati... Datu pertsonala da txertatua izatea edo ez, eritasuna ukana edo ez. Horretan denok ados ginen.

Gure desadostasun handienak txertatzearen inguruan dira, ikuspegi desberdinak ditugu: denok ados gara urririk izan behar direla eta patenterik gabe, eredu kapitalistan

garatu baita txertoa. Batzuek esaten zuten ‘goizegi da’, ‘ez dakigu xuxen zer den txerto horretan’... Hori errespetatzen dugun bezala errespetatzen dugu publiko bat, txertoa gogaitzen zuena, edo arriskuan baitziren osasun arlotik, edo konfiantza zutelako... Gure marra gorria beti izan da hautua libre izatea.

Pase sanitarioaren gaian, berez kontra gara, baina batzuek esaten zuten: ‘Pandemiaren eragina ikusita, ondorioak, mundu mailan hartu duen dimentsioa... Zergatik ez...?’. Inork ez du defendatu ‘pase sanitarioa bai, eta denean’. Baina batzuek pentsatzen zuten onargarri zela denbora mugatu batean, arau mugatuekin eta abar”. Baina Blainek gehitu

duenez, “ohartu gara aplikazioan ez dela mugarik. Horregatik atera dugu adierazpena: idatzi horretan ez dugu esaten erabat ezetz, baina ez gara batera ados egiten den erabilerarekin”.

QR pasaporteak egunerokoan kontraesan handiak sortzen dituela azaldu du: adibidez, hasieran liburu bat erosteko dendara sartu zitekeen pasaporte hau gabe, baina liburu bera hartzeko liburutegi publikoan sartu ez. Edo kutsatuta egonik pasea duena joan daiteke ekitaldi jendetsu itxi batera, baina kutsatu gabe egonik pasaportea ez duena ez.

Paseak ez duela diskriminatzen bermatzeko, jarritako neurria testa egitea da, baina PCR testek soilik balio dute, ez farmazian merke eskuratu



NAFARROAN QR PASAPORTEA
ezarri zuten lehen egunean, tabernara sartzeko mugikorra eskaneatzen.

daitezkeen autotestek. Horrek praktikan dakar txertatu ezean diru asko behar izatea, eta momentu puntualetan soilik erabili ahal izatea. Blainek adibide bat jarri du: “Abendutik goiti PCRak 24 ordurako soilik balio du, eta 44 euro balio dute txertoa hartu ez dutenentzat, aldiz, txertoa jarria dutenentzat urrik da. Ostaturako langile batek esan zidan, egun erdiz arituta 500 euro irabazten dituela hilabetearen eta PCRTan gastatu behar zuenarekin, lana gelditu du, horrela ez du balio goizetan iratzartzeak”.

Ez Pass! Nora Goaz? Kolektiboak lanpostuari eusteko txertatzera behartu dituzten langileen (medikuak, suhiltzaileak...) egoera salatzeko kanpaina egin du. Lanerako behartuak direlako edo ostatura eta zinemara joaten jarraitu nahi dutelako, pasaportearen indarrean jarriz geroztik jende askok txertoa hartu duela azaldu du Blainek: “Uztartitzeko txertaketa jarraitu dut hautetsi bainaiz bertan, eta pase sanitarioak txertatze kanpainari indar berri bat eman dio, asko dira lehen dosia egiten dutenak”. Blainek azaldu duenez, beste batzuek beren hautuari eusten diote, esanaz “ez, ni ez naiz horrelako xantaia batean sartuko, ez didate inposatuko horrela kenduz ostatu giroa, zinema, aisialdia...”.

Ez Pass! Nora Goaz? Kolektiboko kide Jasone Iroz gordin mintzo da: “Gizartean sortzen duen zatiketa da gehien kezkatzen nauena. Besteen errespetuan, baina nik nire jarrera adieraztea erabaki dut. Nahiz eta oso gogorra den, eta erasotua, baztertua sentitzen naizen hainbat aldiz, uste dut lasaiago nagoela hartu dudana jarraitarekin, nire iritzia defendatzen dudalako”. Norberak bere burua baztertu beharrean, joan nahi duen tokietara joan eta proba egiten du. Pasaportearen eskatzen ez badiote hobe, eta norbaitek eskatzen badio, harekin hitz eginda hausnarketa eta eztabaida lasaia piztea bilatzen du: “Ni ez noa jendearen kontra, zeren ulertzen

EZ PASS! NORA GOAZ?

Kolektiboaren mobilizazioa.



EZ PASS! NORA GOAZ?

dut kafetegiko jabeak badituela bere presioak, mediatekako langileak badituela jarraitu beharreko arauak... Hasteko, ez dakit zer pentsatzen duen pertsona bakoitzak, eta nik ez ditut langile denak zaku berean sartzen: bakoitza da pertsona bat eta ez dut orokortzen. Ni beti saiatzen naiz, adibidez, kafe bat eskatzen. Pasaportearen eskatzen badidate, erantzuten diot ‘a, ohartzen zara diskriminatzen nauczula?’ eta banoa lasai, gogoetarako hazi bat utzi dudana itxaropenarekin. Ez da gauza normala langile batek pertsona bati kafe bat ukatzea. Ez da normaltasun bilakatu behar. Nik nire burua autobaztertu ordez, nahiago dut egoera agerian jartzea”. Batzuetan, eztabaidan sartzeko indarra falta duela aitortu du: “Eguneroko presioa pisua da, dena baldintzatzen baitu pasaporteak”.

Denborarekin ezagun egiten dira pasea eskatzen ez duten lekuak eta bere kideetako inor kanpo utzi nahi ez duten kolektiboek horietara jotzeko ohitura hartzen dute. Blainek azaldu duenez: “Bai, ohartu gabea usaia aldatzen ditugu, bestela baztertzaila da pasea eta jarrera ezker-tiar batetik, bilkuratik atera eta pote

bat ateratzera goazelarik ezin diogu erran bati ‘zuk ez duzu pase sanitarioa eta etxera’”.

Irozek azaldu du pasaporteak etxean liskarrak sortzen dituela, eta guraso bezala gogorra dela seme-alabak baztertuak izateko arriskuan ikustea: “Kirol entrenamendutik etorri zirenean, haurrak lur jota etorri ziren: ‘Ez bagara txertatzen fini! Ez digute jokatzeko utziko’ esan zidaten. Erantzun nien ‘lasai hartuko dugu, hitz egingo dugu, eta hitz ematen dizuet jokatzeko jarraituko duzuela. Aurkituko dugu aterabidea’. Eta kirol taldearekin hitz eginda irtenbidea bilatu zuten. “Familian gogorarazi behar izaten dut ni ez naizela zigortzaila, beste batzuk ari direla neurri ez egokiak hartzen eta gure artean borrokatu ordez goiko erantzuleei begira jarri behar dugula”. Zorionez, lagunartean pasaportetik gabeko jende asko du, baina beste askorekin eztabaidak izan dituztela azaldu du: “Eta eztabaida baino okerragoa da jende batzuekin urruntasun bat sortzen dela. Oso egoera konplikatuak sortzen ditu. Eta dena zergatik? Oso gogorra egiten da gizartean erreazio handirik ez ikustea”.



Abenduaren 18an Bizitza plataformak deituta egindako manifestazioko une bat.

PASAPORTEA IZANIK PASAPORTEAREN AURKA

Bai Blainek eta bai Irozek azaldu dute pasearen aurkako jarrera aktiboa dutenen artean denetarik dagoela, txertoa hartu dutenak eta ez dutenak. Blain: “Kide batzuk txertatuak dira baina ukatzen dute pase sanitarioa erakustea. Ez dute onartzen pauso hori, diskriminazioa delako, berriz ere datu pertsonalen kudeaketa okerra egiten delako...”.

Irozek azaldu du Ez Pass! Nora Goaz? Kolektiboan denetarik dagoela, txertatutakoak eta gabeak; pasearen aurka daude, eta txertoa hartzea norberak erabakitzearen alde. Irailaz geroztik, astero biltzen dira Kanbon 35 bat pertsona, iluntzetik goizaldeko ordu txikiak arte: “Badira osasun alorreko langile batzuk, horietako batzuk lanetik bota dituztenak. Badira Baxe Nafarroako laborariak. Badira irakasleak, Seaskakoak, ikastetxe katolikokoak eta publikokoak. Badira ikus-entzunezkoetakoak eta beste alorretakoak ere bai. Badira politikagintzan sartutakoak, badira herri mugimenduetan ari direnak, jende inplikatu...”.

Europako QR pasaporteak norbakoari aurrerantzean nola jokatu

galdera planteatzen dio. Baina kolektibo bakoitzari ere hautua egin beharra ekartzen dio: antolatuko dituen ekitaldietan jende bat kanpo uzten duen pasaportea eskatuko da edo ez? Blainek azaldu du nola kudeatu zuten



**PANDEMIAREN AURREAN
HARTU DITUZEN
NEURRIAK, TARTEAN
PASE HAU, HAIEN
JENDARTE EREDUA
GARATZEKO BALIATZEN
DITUZTE. GUK EZ DUGU
BAT EGITEN HORREKIN”**

NIKOLAS BLAIN, EH BAI

auzia EH Baik irailean antolatu zituen udako unibertsitateetan: “Herriko giletan legea aplikatu behar da. Leku pribatuetan, adibidez elkarte batean, errazago da legea ez guztiz aplikatzea. EH Bairen posizioa izan zen gu ez gara hori pase sanitarioa kontrolatze-

ko. Galdegiten diogu jendeari ukaitea, galdegiten diogu jendeari maskara jartzea (hori bai dela eraginkorragoa kutsatzeko arriskuaren aurrean)... Gure ekimenetan ez dugu kontrolatzen, jendeari galdegin diogu beren ardura hartzea”. Azaldu du EH Baik kanpo ere, kultur eta gizarte eragileetan eztabaidak sortu direla ea haiek antolatutako ekitaldietan pasaportea eskatuko duten edo ez.

Irozek horixe eskatzen die erabakiguneetan diren ezkerreko alderdiei: “Esan dezatela praktikan zer egingo duten. EH Bairen agiria esker-tu dut eta baikorki baloratu dut. Eta gero zer? Herriko Etxean agintean diren herrietako mediatekak itxirik mantendu behar dituzte herritar batzuentzat edo ez? Abertzaleak eta sozialistak daude Hendaia Herriko Etxean eta bertan, martxoan erretiroa hartzeko den gizarte zerbitzuetako langile bat kanporatzekotan dira, pasaporterik ez duelako. Langile horrek adierazi du prest dagoela edozein lan egiteko falta zaizkion lau hilabeteak betetzeko. Horrelako egoeretan nola jokatu dute pasaportea auzitan jartzen duten alderdi politikoek?”.

Txertoa



Txertoaren eraginkortasuna

COVID-19a ez harrapatzeko

txertoek duten eraginkortasuna:

%76koa da emakumeengan

%80koa gizonengan

Ospitalean ez bukatzeko

txertoek duten eraginkortasuna:

%93koa da sexua edozein izanik ere


Hiltzea saihesteko

txertoen eraginkortasuna:

%92koa da emakumeengan

%91koa gizonengan

Datuen iturria: Espainiako Gobernua.
COVID-19ren aurrean Espainiako txertaketaren
eraginkortasunaren analisia, 2. informea,
2021eko urriaren 13koa.



Txertatutako kopurua

Nafarroan 12 urtez gorako herritarren:

%90,4k du pauta osoa hartuta

abenduaren 9an.

EAEn 12 urtez gorako herritarren:

%90,5ek du pauta osoa hartuta

abenduaren 9an.

Ipar Euskal Herrian 18 urtez gorakoen:

%90ek du pauta osoa hartuta

abenduaren 13an.

Datuen iturriak:

- Espainiako Gobernua. COVID-19aren txertaketaren kudeaketa osoa.
2021eko abenduaren 10eko informea.

- Frantziako Gobernuaren webgunea, txertaketaren datuen atala.

Pasaportea



Ipar Euskal Herrian

Uztailaren 21etik da indarrean Ipar Euskal Herrian. Pasaportea eskuratzeko hiru modu daude: **txertoaren dosi denak** hartu izana, **gaixotasuna azken sei hilabeteetan pasatu izana** eta test negatiboa aurkeztea. Hasieran, 72 ordu lehenago egindako PCR eta antigeno testak izan zitezkeen eta urrikir ziren. Ondoren, **PCRek soilik balio zuten**, txertoa hartu ez zutenek ordaindu behar zuten eta **24 ordurako** pasea ematen du horrek. Urtarrilaz geroztik, **txertoak soilik** balioko du.

Ospitaleetan, tabernetan, kultur eta kirol ekitaldietan, aisialdiko jardueretan, bidai luzeak egiteko garraioan eta inzidentzia tasa 200dik gorakoa den herrietako **saltoki handietan** da derrigorrezkoa.


Hasieran azaroaren 15 arteko epea zuen, orain, printzipioz, **uztailaren 31** artekoa.

Nafarroan

Azaroaren 24ko data darama Agindu Foralak. Pasaportea eskuratzeko modu hauek daude: **txertoaren dosi denak** hartuta izatea, **azken 48 ordutan egindako antigeno** test negatibo bat edo **azken 72 ordutan egindako PCR** test negatibo aurkeztea edo **azken sei hilabeteetan gaixotasuna pasatu** izana.

Dantzalekuetan, 00:00etatik aurrera taberna barruetan eta 60 pertsonatik gorako aforoa duten jatetxeen barrualdeetan da derrigorrezkoa. Baita **areto itxietan egiten den 1.000 pertsonatik gorako ekitaldietan**, janari edo edaria zerbitzatzen bada edo jendea zutik egongo bada.

Oraingoz, **urtarrilaren 7** arteko epea du.



EAEn

Azaroaren 17an ezarri zen tabernetan 00:00etatik aurrera, eta abenduaren 14an eremu gehiagotara zabaldu: **inzidentzia tasa 300ekoa den herrietako ospitale eta zentro soziosanitarioak, espetxeak, kiroldegia, kultur aretoak, kirol ekitaldiak.**

Abenduaren 14ko dekretuak dio tabernetan dantza egiteko aukera ematen dutenean eskatuko dela, baina **praktikan, taberna guztietan eskatu beharra ezarri dute, edozein aforo eta eratakoak izanik ere.** 12 urtetik beherakoek eta lanera doazenek ez dute aurkeztu beharko.

Pasaportea eskuratzeko moduak: txertoaren dosi bat edo bi hartuak izatea, gaixotasuna azken sei hilabeteetan pasatu izana, eta **azken 48 ordutan egindako antigeno** test negatibo bat edo **azken 72 ordutan egindako PCR** test negatibo aurkeztea.

Oraingoz, **urtarrilaren 31** arteko epea du.

BINGEN ZUPIRIA

“Uste dut txertatu ez direnek txertatzen amaitu beharko dutela, gainerakoek bezalako bizitza soziala izaten jarraitu nahi badute”

Elkarriketa hau egin zion Radio Vitoriak Bingen Zupiria Jaurlaritzako bozeramaileari 2021eko abenduaren 10ean.

Oharra: QR pasaportearen erabilera ez zegoen oraindik eremu guztietara zabaldua.

■ **Pasaportea bere funtzioa betetzen ari al da? Logikoki, kutsatzea ez du saihesten, baina “behartu” al ditu pertsona batzuk txertatzera?**

Uste dut bere funtzioa betetzen ari dela. Saiatuko naiz azaltzen zein den pasaporte honen funtzioa. Egun hauetan bi egoera bizi izan ditut, azaltzen dutenak zertarako ez duen balio pasaporteak: bata jatetxe batean bizi izan nuen, barra ere baduena; jatetxeko mahaietara sartzeko COVID pasaportea eskatzen zuten, baina jantokiari lotua zegoen barran ez zuten pasaportea eskatzen eta ikusten nuen jende askok ez zuela egiten barrualdeetan egin behar dena: maskara etengabe jarrita edukitzea. Baziren maskararik gabeko taldeak, builaka, jaten eta edaten... Txertaketa ziurtagiriare-

kin sartuta dena konponduta dugu-la pentsatzen badugu, oker gaude.

Beste esperientzia gaueko musika lokal batean izan zen, zeinetan jendea iristen zen modu ordenatuan, ilara itxaroten zuen distantzia gordez, bere txerto ziurtagiria erakusten zuen, baina barrura sartzen zenean maskara kendu eta dena ahazten zuen.

Pasaporteak egiten duen bakarra da adieraztea txertaketa osoa dugula eta beraz arreta hori hartu dugula, baina hortik aurrera indarrean diren neurri guztiak betetzen jarraitu behar dugu.

■ **Baduzu daturik zenbat jende txertatu den COVID pasaportea-gatik, hau erakutsi behar izan ez balute txertatuko ez zirenak?**

2.000 pertsona inguru izango dira, azken aldi honetan txertoa hartzera animatu direnak.

■ **Asmoa dago beste leku itxi batzuetan ere aplikatzeko?**

Lehendakaria eta Osasun saila inguruan egiten ari denari arreta jartzen ari dira: beste autonomia erkidegotan, baina batez ere ziurtagiri hau aplikatzen ari diren Europako estatuetan. Daukagun ardura arindu gabe, komeni da Europa osoan gertatzen ari denari begiratzea: Europa osoan gertatzen ari dena gertatzen ari zaigu. Abantaila batekin: autonomia erkidego honetako eta Espainiko Estatuko herritarren gehien-goak erabaki dugula txertatzea, eta babes handiagoa dugula. Baina pandemia badabil eta seguraski hila bete askotan jarraitu egingo du, ez bada urtetan. Ikasi beharko dugu pandemia honekin elkarbizitzeko.

■ **Badira beste estatuek hartutako beste neurriren batzuk?**



Badira estatuak zeinetan txertoa hartu ez dutenak konfinatu egin dituzten. Gu ez gara horra iritsiko, baina hori ari da gertatzen Europan. Beste leku batzuetan txerto ziurtagiria eskatzen ari dira leku askotara sarbidea izateko: jarduera ezberdinetarako pertsonak elkartzen diren barnealde guztietan, erresidentzietara eta ospitaleetara sartzeko... txertoen ziurtagiri honen erabilera zabala egin beharko genuke babes-teko, baina baita ere jendea animatzeko txertoa hartzera.

Gogoratu behar da neurri hau [QR pasaporteak] bat gehiago dela. Badira beste neurri asko ere indarrean, bete beharko genituzkeenak.

Beste elkarrizketa hau egin zion Onda Vascak Bingen Zupiria Jaurlaritzako bozeramaileari 2021eko abenduaren 15ean.

Euskal gizarteak COVID ziurtagiriarekiko onarpen sentimendua du?

Ez da erraza kategorikoki erantzuten zein den gizarte baten iritzia, gizartea bertan bizi garen gizon eta emakume bakoitzak osatzen dugulako eta ezberdintasunak eta ñabardurak izan ditzakegu. Baina Lehendakartzaren zati den Prospekzio Soziologikoen Kabineteak lau inkesta egin ditu pandemiaren ia bi urte hauetan eta konprobatu dugu euskal gizartearen gehiengoaren artean pandemiarekiko ardurazko jarrera dagoela eta beti ikusi dugu gehiengoaren borondatea edo aldeko iritzia izan dela egoera honi aurre egiteko neurriak hartzearen aldekoa. Beraz, uste dugu gizartearen gehiengoaren onespina dagoela une bakoitzean behar diren neurriak hartzen joateko. Ez zaie COVID pasaporteaz galdetu oraindik, baina sentsazioa dugu euskal gizartearen gehiengoak partekatzen duela Jaurlaritzaren iritzia, neurriak hartu behar direla, egoera bakoitzean direnak direla, egoera honi aurre egiteko.

COVID pasaportearen aurkako iritzia badira. Adibidez, larunbaterako Donostian manifestazioa deituta dago [Bizitza plataformak abenduaren 18an egindakoaz ari da], zeinak alderatu ere egiten duen Alemania naziarekin. Zer esango zenieke jende horiei?

Nik jende horiei ez nieke ezer esango. Pentsatzen dut ados ez egoteko haien eskubidea egikaritzen ari direla, eta aurkako iritzia emateko eskubidea gauzatzen. Bai gogoratuko nieke, Jaurlaritzaren bozeramaile naizen aldetik, zein zen herri honetan 2020an bizi izan genuen egoera, eta konparatuko nuke egun bizitzen ari garenarekin; eta ziurtatuko nuke ospitaleetan ingresatu duten pertsonen kopuruak, ZIUetan daudenena, edo aurrean hil direnena, iazko urtekoa baino txikiagoak direla eta hori progresiboki ikusten joan garela eta txertatze prozesuaren ondorio dela, zeinak ez duen gaixotasunaren transmisioa saihesten, baina bai sortzen digula segurtasun gortina bat gaixotzen bagara ez dezagun larri pasatu.

(...)

Gizarte honen gehiengo oso garrrantzitsu batek erabaki du edo onartu du txertatzea dela gaixotasun honen aurrean daukagun babes bakarra eta hori egitera jo du bere borondatez. Eta egin nahi ez duenak, ba berak ikusiko du, nik uste dut txertatzen amaitzeko atakan izango dela, gainerakoek bezalako bizitza soziala izan nahi badute. Eskubidea dute ez egiteko, baina kasu horretan seguru aski beste era batera bizi beharko dute. Zeren besteok ere eskubidea dugu seguru egotekoa. ●



40 €-tik gorako erosketetan,
bidalketa doan.

Lasarte-Oriako ARGIAren
egoitzan denda zabalik
08:00etatik **15:00**etara
(beste ordutegiak aurrez kontsultatu).

azoka.argia.eus 943 37 15 45

